



2008KO EKAINAREN 26KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta zortziko ekainaren hogeita seian, iluntzeko zazpi-etan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte, Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi, M^a Lourdes Garmendia Guerra, Xabier Arrasate Aierbe, Inazio Estensoro Eskisabel, Inazio Barandiaran Aldasoro, Juan Manuel Serna Portugal, Ricardo Crespo Rubio, Iñaki Saldaña Herrero eta Javier Moreno González de Lara.

Ángel Hernández Marzal zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Bilkurari hasiera eman ondoren Alkateak esaten du ondoren adieraziko dituen mozioak bidali baldin baziezkien ere, asteartean posta elektronikoarekin arazoak izan zirela eta beraz formalki osoko bilkuran sartzea eskatzen duela, presazko izaeraz, ondorengo hauek: 33/01 Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren aurkako auziaren aurrean EAJ eta EBren mozioa; Israelek egin daukan Palestinaren okupazioaren gaiaren inguruko EAJ eta EBren izenean mozioa; eta inmigrazioari buruz Europako Direktibaren aurka, EAJ eta EBren mozioa.

Denak ontzat ematen dute mozio hauek sartzea.

I.- AURREKO AKTA.-

Jarraian, bertaratutakoen onespenera aurkezten dira 2008ko apirilaren 3an egindako ez-ohiko bilkurako eta 2008ko apirilaren 24an egindako ohiko bilkuretako aktak.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du, 2008ko apirilaren 3ko ez-ohiko bilkurako aktak, Kutxako 2 kontseilari orokorren izendatzeari buruzko puntuan, argitzea nahiko lu-keela, Ezker Batuko zinegotziari barkamena eskatzen dioela esandakoarengatik esaten de-nean, barkazioa Ezker Batuari egiten zaion aipamenarengatik dela soil soilik, berak esan zuen gobernu taldearen erabakia aipatzen zuen eta EBko zinegotziak erantzun zion ez zela gobernu taldearena baizik eta gobernu taldeko alderdi batena.

Puntualizazio hau egin ondoren, gainontzean, aipatu aktak, idatzita dauden modu-an onartzen dira guztien adostasunarekin.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpe-nen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

...///...

Serna zinegotziak (PSE-EE) ebazpenen laburpenen gaiak batzuetan euskaraz baka-
rrik daudela eta oso-osorik bi hizkuntzetan egotea eskatzen du.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- ARERIA ERAIKINA ERAIKUNTZAREN 17. OBRA EGIAZTAGIRIA.-.-

Areria eraikin sozio-kulturalaren eraikuntza lanen obra zuzendaritza daraman Jose Manuel Elizegi Sarobe arkitektoak lanen hamazazpigarren egiaztagiria luzatu du. Hama-
zazpigarren egiaztagiri honen zenbatekoa EHUN ETA HOGETA HAMAR MILA LAUEHUN
ETA HIRUROGEITA HAMABI EURO eta BERROGEITA HIRU ZENTIMOtakoa (130.472,43 €)
da. Lan hauek ARERIA Aldi Baterako Enpresa Elkartea ari da burutzen.

Udal teknikariak zertifikazioa aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botue-
kin, Areria eraikin sozio-kulturalaren eraikuntza lanen hamazazpigarren obra egiaztagiria
onartzea erabakitzen du.

IV.- LAZKAO LANTZEN, S.A.REN KAPITAL HANDITZEA.-

Jarraian Lazkao Lantzen, S.A. udal elkartearen kapital handitze proposamenari bu-
ruz eztabaidatzen da.

Proposamena, kapital handitze horretan Lazkaoko Udalak Arau Subsidiarioetako 1
Sektorean (Orobione gunea) lursail eraikigarrietako batean daukan bere jabetzako partai-
detza ematea da. Ematea proposatzen den partaidetza, 1 Sektoreko 1 Burutze Unitateko
Birpartzelazio Proiektuko emaitzazko 5 zbk.dun lursailaren % 67,91 da eta partaidetza
honek, kapital handitze honetarako egin den baloraketaren arabera, SEIEHUN ETA BE-
RROGEITA HAMASEI MILA BERREHUN ETA HIRUROGEITA HAMALAU EURO ETA LAURO-
GEITA HAMAHAZPI ZENTIMOtako (656.274,97 €) balioa dauka.

Hona hemen Lazkao Lantzen, S.A.ren kapital handitzerako ematea proposatzen
den lursailaren ezaugarriak:

"EMAITZAZKO 5 ZBK.DUN PARTZELA

1.- Deskribapena:

Egoitza-finka urbanizagarria. 624m²-ko azalera du, eta 3.904,70m²-ko guztizko
sabai aprobeitxamendua dagokio, bizitegi, garaje eta merkatal erabilerekin.

Alde guztietatik muga hauek ditu, Iparraldetik, jabari publikoko lursailekin; Hegoal-
detik, emaitzazko PR2 lursailarekin; Ekialdetik, herri jabariarekin; eta Mendebaldetik,
herri jabariarekin. Aipatu finkan etxebizitza libreria bideratutako 1.613,75 m² eta ta-
satutako etxebizitzetara bideratutako 779,25m², garaje libreria bideratutako 890,67
m² eta tasatutako garajeetara bideratutako 178,98m² eraiki ahal izango dira.

...///...



...///...

2.- Hirigintz arauak:

Partzela honen titulartasunari atxikitako eskubide eta betebeharrak Lazkaoko Planeanamenduko Arau Subsidiarioetako eta 2004ko abenduaren 14an onartutako 1. Sektoreko Zatikako Planaren eta 2007ko maiatzaren 8an onartutako bere aldaketaren zehaztapenak ezarritako mugen barnean burutu beharko dira.

3.- Kargak:

Erabilera publikoko mirabetzaren karga izango dute eraikiko den etxebizitza berriko ataripeek, lurpeko aprobetxamenduen gainean kokatutako guneek eta sotorako sarbideek.

Finka honen gainean, eta zehatzago, eraikiko den eraikinaren eta garajeetara bideratutako 1 eta 2 sotoen gainean, ibilgailuen pasabideko mirabetza sortzen da emaitzazko PR2 lursailaren alde.

Halaber, ur, saneamendu, elektrizitate eta telekomunikazio instalazioentzako pasabide mirabetza erreziprokoa ezartzen da lursail honen gainean.

4.- Esleipena:

Finka honen domeinua honela esleitzen da:

- Lazkaoko Udalari %67,91ko partaidetzan.
- Lazkao Lantzen, S.A.ri %32,09ko partaidetzan.

Aurreko esleipendunak, esandako guztiek, ondoren adierazten diren zenbatekoen pareko aprobetxamenduen gabezia dute:

Lazkaoko Udala	13.966,82 €
Lazkao Lantzen, S.A.	6.576,46 €

Gabezi hauek emaitzazko PR2 lursailaren esleipenduna den Promotora Latxartegi, S.A.k ordaindu beharko dizkie.

5.- Jarritako finkarekin korrespondentzia:

- Lazkaoko Udalari dagokion jarritako 1 zbk.dun lursailaren 33,0200.
- Lazkao Lantzen, S.A.ri dagokion jarritako 1 zbk.dun lursailaren %15,6034.

6.- Hirigintz karga:

Hirigintz Kudeaketa Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoaren arabera, finka hau, izaera errealez, kooperazio sistemari atxikitako kargak betetzera eta gastuak ordaintzera behartua gelditzen da, finka honen gain egokitzen den karga burutze unitateari dagokion guztizkoaren %22,53 delarik.

Finkak jasaten duen kargaren behin-behineko likidazioaren saldoa 628.626,72 €-koa da."

...///...

...///...

Kapital handitzea egiterakoan, honek akzio kopuru baten balioarekin bat etorri behar du eta lursailaren balioa, Lazkaoko Udalaren jabetzakoa den %67,91aren partaidetza-ren balioa, SERVATAS enpresak egindako balorazioaren arabera, SEIEHUN ETA BERROGEITA HAMASEI MILA BERREHUN ETA HIRUROGEITA HAMALAU EURO ETA LAUROGEITA HAMAZAZPI ZENTIMO (656.274,97 €) da.

Lazkao Lantzen, S.A.ren akzio bakoitzaren balioa 6,10 € da eta lehengo balore akzio bakoitzarenaren balorearekin zatituz gero, eta balore hori erabat estalita gera dadin honako emaitza hau dugu: atera beharreko akzio zenbatekoa EHUN ETA ZAZPI MILA BOSTEHUN ETA LAUROGEITA ZAZPIkoa da, guztira SEIEHUN ETA BERROGEITA HAMASEI MILA BERREHUN ETA LAUROGEI EURO ETA HIRUROGEITA HAMAR ZENTIMO (656.280,70 €). Beraz akzio kopuru honen guztizko balioa estaltzeko lehen zehaztutako lursaillean Lazkaoko Udalaren partaidetza eta dirutan BOST EURO ETA HIRUROGEITA HAMAHIRU ZENTIMO (5,73 €) jartzea proposatzen da.

Gaia aztertu ondoren, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- Lazkao Lantzen, S.A.ren kapital handitzean, Lazkaoko Udalak bere jabetzakoa duen 1 Sektoreko 1 Burutze Unitateko Birpartzelazio Proiektuko emaitzazko 5 zbk.dun lursailaren %67,91ko partaidetza eman eta akzio kopuruaren zenbatekoa biribiltzeko bost euro eta hirurogeita hamahiru (5,73 €) dirutan jartzeko proposamena onartzea.
- 2.- Alkatea ahalmentzea aurreko puntuan hartutako akordioa egikaritzeko Lazkaoko Udalaren izenean izenpetu beharreko dokumentuak izenpetzeko.

V.- ARERIA ERAIKINEKO ARETO NAGUSIAREN USTIAKUNTZARAKO KUDEAKETA MODUA.-

Areria eraikin sozio-kulturalaren eraikuntzaren amaierara iristen ari delarik, bere ustiakuntzari buruz eraikinean bi zati ikusten dira bereizi beharrekoak. Bata areto nagusia, zinea, antzerkia eta jende askoko ikuskizunak hartzeko prestatutakoa eta beste aldetik, talde txikiagoak hartuko dituzten kultur ekintza, ikastaro, tailer eta abarretarako gaineko gelen ustiakuntza.

Hau horrela, areto handiaren ustiakuntza zeharkako kudeaketa bidez egitea planteatzen da, hau da kanpoko enpresa bidez, eta gainontzeko aretoena kudeaketa zuzen bidez, hau da udalak berak kudeatuta.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du gaiaren inguruko behar adinako informaziorik ez daukala eta gai honi buruzko erabakia beste batetarako uztea eskatzen du.

Alkateak erantzuten dio gai hau Areriako Batzorde Berezian eta baita ere Ogasun Batzordean aztertu dela eta gauden urte garaian erabakia atzeratzea ezinezkoa dela esaten dio.

Estensoro zinegotziak, Ogasun Batzordearen presidente gisa, esaten dio batzordean hitzegindakoa nahiko laburra izan zela eta berriro hemen adieraziko diola. Esaten du, batzordean eztabaidatu zela kudeaketa zeharkakoa izan beharrean zergaitik ez zuzena, baina han esan zen bezala eta Gipuzkoako beste herri guztietan jarraitzen den eredua ja-

...///...



...///...

rraituz, kudeaketa hau profesionalizatu eta espezializatutako enpresa bidez eramaten dela, eta jakinda baita ere ziurrenik ere defizitarioa izango dela eta dirua jarri beharko dela.

Serna zinegotziak esaten du bere taldea abstenitu egingo dela eta gaineratzen du behar bada ez zela hau gertatuko legegintzaldi hasieran bere alderditik eskatu zen bezala batzordetako eguneko gai zerrendak eta batipat aktak egin eta banatuko balira.

Saldaña zinegotziak (EB) esaten du, batzordean esan zuen bezala, bere alderditik beti bultzatuko dela udaletik kudeatzen den guztia publikoa izan dadin, nahiz eta hau defizitarioa izan, eta hori horrela izan zeharkako kudeaketa egiteko proposamenaren aurrean aurka bozkatuko duela.

Guzti honen ondoren, gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 9 botu (EAJ, PP), aurkako botu bat (EB) eta 2 abstentziorekin (PSE-EE) proposamena onartu egiten du.

VI.- SAN BENITO IKASTOLARI MIKELARGO HAUR-ESKOLA ERAIKINA ETA SAN PRUDENTZIO IKASTETXEA ERAIKINAREN ERABILERA UZTEA.-

Jarraian, Mikelar 29-Bn kokatzen den Mikelargo haur-eskola eraikina eta Euskadi Enparantza, 2n kokatzen den San Prudentzio Ikastetxea eraikinaren erabilpen eskubidea 50 urterako San Benito Ikastolari ematea planteatzen da.

Mikelar 29-Bn kokatzen den Mikelargo haur-eskola eraikinaren erabilpen uztearena eraikin osoarena izango litzateke eta Euskadi Enparantza, 2n kokatzen den San Prudentzio Ikastetxearen erabilpen uztearenean berriz Helduentzako Heziketarako Gela salbuetsi beharko litzateke. Gela hau, San Prudentzio Ikastetxea eraikinaren ekialdeko behe solairuko sarreratik sartuta, ezkerretara gelditzen den lehen gela da.

Esan behar da erabilpen hau gaur egun jadanik egiten dela baina inon jaso gabe dagoenez, Osoko Bilkurari erabilera hau onar dezan proposatzen zaio.

Hau honela, eta gaia aurrez Ogasun Batzordean aztertua izan delarik, eta honen proposamenez, Osoko Bilkurak, aldeko 10 botu (EAJ, EB, PP), aurkako boturik gabe eta 2 abstentzioz (PSE-EE) proposamena onartu egiten da.

VII.- AMNISTIAREN ALDEKO MUGIMENDUAREN AURKAKO 33/01 AUZIAREN AURREAN AURKEZTUTAKO MOZIOA ETA GAI BERAREN INGURUKO EAJ ETA EB-RENA.-

Igortz Badiola Arratibelek izenpetutako mozioak honela dio:

"33/01, amnistiaren aldeko mugimenduaren aurkako auziaren aurrean adierazi nahi dugu:

Dispertsioa salatzea ez da delitua. Preso politilkoen kolektiboaren kontra hamarkadatan ezarri den eta ezartzen den dispertsio eta muturreko neurriek osatzen duten salbuespen goera da delitua.

...///...

...///...

Tortura salatzea ez da delitua. Torturatzea eta tortura ahalbidetzen duen tresneria hori guztia da delitua; salbuespeneko tribunalak, inkomunikazio legea eta funtsean torturatze-ko eraikia den inpunitate esparrua bera da delitua.

Errepresioa salatzea eta pertsonen eskubideak babestea ez da delitua. Estatuen biolentzia eta eskubide urraketa dira delituak.

Elkartasuna ez da delitua. Presoak eta euskal herrian errepresioa jasaten duten milaka emakume eta gizon babes eta elkartasunik gabe uzteko mugimenduen kontrako kriminalizazio eta erasoak dira delitua.

Preso, iheslari eta beren senitartekoak lagundu eta babestea ez da delitua. Kolektibo hau-ek hondoratzeko eta zatitzeko helburuarekin burutzen diren jazarpen, eraso eta eskubide urraketa horiek guztiak dira delitua.

Auzipetu dutena eta epaitu nahi dutena Estatuen biolentzia eta errepresioaren salaketa eta euskal preso nahiz errepresaliatu guztiekiko elkartasuna da. Frantziako eta Espainiako estatuak euskal gizartearen eta munduaren aurrean biluzten dituen eta beren izaera ez demokratikoa begi bistako egiten duen testigu nagusia erditik kendu nahi dutelako.

Honenbestez, udal honek ondorengo eskakizun eta konpromisoak zehazten ditu:

- Elkartasun eta babesa luzatzen diegu amnistiaren aldeko mugimenduko 27 auziperatu eta mugimendu honetako militante guztiei.
- Auzi honek dakartzan galera ekonomikoei aurre egiteko euroko diru laguntza emango diegu.
- Kriminalizatu nahi den amnistiaren aldeko mugimenduak bere lanean jarraitzeko duen zilegitasuna aldarrikatzen dugu espainiako estatuaren eta sistema judizialaren aurrean eta bere lan sozial eta politikoan jarraitzeko ezartzen ari zaizkien trabak gainditzeko exigentzia luzatzen dugu. Auzi honen amierarekin batera, debeku eta kriminalizazio ekintzak amaitzea.
- Eskubide zibil eta politikoen urraketa, tortura eta euskal heritarren kontrako errepresio bidegabearen zerrenda amaigabea ahalbidetzen duen auzitegi nazionalaren desagere-pena aldarrikatzen dugu.

Amnistiaren aldeko mugimenduak esparru bat eskaini dio eta eskaintzen dio herri honi, errepresioa salatu eta elkartasuna antolatzeke. Espazio bat, zeinetan gu geu ere, milaka herriar eta sektore legez partaide garen.

Madrilgo auzitegi nazionalan Amnistiaren Aldeko Mugimendua epaitu nahi den honetan, gu geu ere epaituak sentitzen gara. Elkartasunerako eta errepresioaren salaketarako ha-maika ekimen partaide izan garelako eta aurrerantzean ere partaide izaten jarraitu nahi dugulako.

Honenbestez;

...///...



...///...

- Amnistiaren aldeko mugimenduak eskaintzen digun esparru horretan errepresioa salatu eta errepresaliatuekiko elkartasunean betidanik izan dugun konpromisoan berresten gara. Aurrerantzean ere gure ekarpena egiten jarraituko dugula adierazten dugu.
- Epaitua izaten ari den amnistiaren aldeko mugimenduari eta 27 auziperatuei ere gure elkartasun eta babes osoa eskaini hai diegu, Euskal Herrian beharrezkoa ulertzen dugun lan horretan jarraitzeko.
- Amnistia aldarrikatzen dugu. Epaiketa hau bezala, Euskal Herrian jasaten den eskubide urraketa eta salbuespen egoera ahalbidetzen duen errepresio estrategiaren amaiera aldarrikatzen dugu bi estatuen aurrean eta horretarako eraikiak dituzten salbuespen tribunal, lege nahiz aparatuen desagerpena beharrezkoa ulertzen dugu. Preso politiko-en errekonozimendu eta bere eskubide guztiak aldarrikatzen ditugu. Euskal Herriaren-tzat amnistia aldarrikatzen dugu. Presoen askatasuna eta iheslarien itzulera aldarrikatzen dugu, Euskal Herriak askatasunez erabaki eta bizi ahal izateko dituen arrazoi eta trabak gaindituak izateko bidean ezinbestekoa baita amnistia."

EAJ eta EBk izenpetutako mozioak honela dio:

"33/01, amnistiaren aldeko mugimenduaren aurkako auziaren aurrean, EAJko eta EBko udal gobernu taldeak, udalbatzari hurrengo mozioa aurkezten dio, bertan eztabaida eta onar dezan:

Mozioa:

1. Udal honek, norbanako giza eskubide guztien aldeko jarrera irmoa adierazten du. Printzipio humanitarioekin zein gizakien eskubide eta askatasunarekin duen konpromisoa.
2. Euskal presoak jasaten ari diren dispertsio, urruntze eta inkomunikazioa da eurei eta euren familiei kartzela politikak ezartzen dien zigor gehigarriak handiena.
3. Guzti hau salatzeak eraman ditu 27 euskal hiritarrek auziperatuak izatera. ETA erakundearen parte izatearen edo laguntza eskaintzearen akusaziopean.
4. Bere garaian, diseinu eta bultzada politikoaren eskutik, "dena ETA da" tesiaren aldeko apustua eginez epaitegietan jantzi judiziala eman nahi izatea salatzen dugu.
5. Gatazkaren humanizazioaren eta berradiskidetzearen aldeko konpromisoa dugunok, herri honetan giza eskubideen etengabeko urraketa guztiak salatzea exijitzen dugu.
6. Bizi dugun egoera politiko honetan, auzi hau ere bake eta normalizaziorako oztopoa bilakatzen ari da. Irekitako kausa penaletan zuzeneko erantzukizun eta eskumena duten Estatuko instituzioei amaiera eman diezaietela jazarpen politiko eta judizialeko prozesu honi eskatzen dugu."

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du bi mozioen aurka bozkatu behar dutela ze bien arteko alde bakarra batean ekonomi zenbatekoa eskatzea eta bestean ez dela; esaten du baita ere lehen mozioa aurkeztu dutenenetik espero zitekeela baina benetan harritzen dituztena, bigarren mozioa aurkeztu dutenena dela, hau da EAJrena, esaten diren

...///...



...///...

gauza batzuk demagogi biktimistaren jokuan erortzen direla Euskal Herrian bizi diren pertsonen benetako egoera ahaztuz eta ez bakarrik, dirudienez, beraiei interesatzen zaizkienena, prozesu batzuen barruan murgilduta dauden eta bere garaian Justiziak esaten den bezala diren ala ez ebatziko duen auziei buruz.

Estensoro zinegotziak (EAJ) Sernak esandakoari erantzunez esaten du dispertsioaren gaia salatzen daramatzatela eta ez dela ezer berria; esaten du baita ere dena E.T.A. dela esatearen diseinu politiko-judiziala saltzen ari direla eta berak uste duela Batasunaren ingurua ez diren alderdi politiko asko ari direla hori salatzen, eta hori bai Legebiltzarrean bai beste instituzioetan behin eta berriz esan da; eta azkenik, esaten du, berari harritzen diona PSOeri harritzea dela.

Saldaña zinegotziak (EB) esaten du PSOetik harritzen duena zera dela: estreineko dagoen arazo larria ez duela aitortzen ikusteak;

Jendartetik eta alkateak hitzegiteko baimena eman ondoren, Joseba Hernandez Madinabeitiak esaten du baikortasunez ikusten dutela kontramozio honen edukia eta beste batetarako adostasun batetara iristen saioa egiteko prest leudekela; eta esaten du baita ere, hala ere alde handiak ikusten dituela bi mozioen artean.

Guzti honen ondoren bi mozioak bozketatzen dira. Lehen mozioari dagokionean, Osoko Bilkurak, aldeko boturik gabe, aurkako 9 botu (EAJ, PSE-EE, PP) eta 3 abstentzior (EB, Felix Urkola eta Lurdes Garmendia) ez du onartzen. Bigarren mozioari dagokionean, Osoko Bilkurak, aldeko 6 botu (EAJ), aurkako 3 botu (PSE-EE, PP) eta 3 abestentzior (EB, Felix Urkola, Lurdes Garmendia) onartu egiten du.

VIII.- ISRAELEK EGINA DAUKAN PALESTINAREN OKUPAZIOAREN AURKAKO MOZIOA ETA GAI BRAREN INGURUKO EAJ ETA EB-RENA .-

Ane Gurrutxaga Dorronsorok izenpetutako mozioak honela dio:

"2008an 60 urte betetzen dira Israelgo estatua ilegalki eta gerraren ondorioz sortu zela. "Nakba" edo benetako katastrofearen 60. urteurrena gogoratuko dute aurten Palestinarrak. Orduz geroztik Israelen gerra estrategiak bere horretan jarraitu du eta Palestinarrak bizi-irauten diardute egoera latz horretan.

2005eko ekainean Mardako (Palestina) eta Arbizuko (Euskal Herria) herriek senidetze agiri batez beren arteko erlazioa hasi zuten. Agiri honetan elkarrekiko elkartasunean konprometitu ziren. Orain, elkartasun hau Euskal Herri guzira zabaldu nahiez, eta Israelgo estatu sionista okupatzaileak lurralde palestinarrean harresia eraikitzen jarraitzen duela ikusirik, honako mozio hau aurkeztu dugu:

2004ko uztailaren 9an, Nazioarteko Justizia Auzitegiak, NBEko Batzar Orokorraren eskaraz, Iritzi Kontsultibo irizpen bat eman zuen palestinar lurralde okupatuan eraikitako Harresiaren ondorio juridikoei buruz. Irizpen horrek, Harresia legez kanpokoa dela ezartzen du.

Hau gutxi balitz, Euskal Herritik Palestinara joandako brigadisten informazio zuzenek egiaztatzen dute, Harresia eraikitzeak etxeen suntsiketa dakarrela, soroen suntsipena,

...///...



...///...

ureztatze sareena, akuiferoen isolamendua, palestinar biztanleen ezintasuna beren lan, aisialdi, eskola, hospital eta formakuntza eremuetara iristeko ... Honek dakarren kalte ekonomikoarekin, eta baita palestinar askoren hilketarekin ere askotan.

Harresia 2002an hasi ziren eraikitzen, eta gaur egun, lehenbiziko faseko 650 km-ak osatu dira. Harresiarekin 1967. urtera arte okupaturiko lurraldeak Zisjordaniatik banandu nahi ditu Israelek, eta segurtasun arrazoi bidez justifikatzen du. Hala ere, Harresia sigi-saga barneratzen da Zisjordanian Israeli komeni zaion bakoitzean. Honela, ahalik eta kolonia gehien anexionatzen ditu, palestinar lurralde eta akuiferoen gaineko kontrol izugarria erdiesten du, eta palestinar biztanleen arteko banaketa gauzatzen du, palestinar gizartearen esistentzia bera ere bideraezina eginez. Harresia eraikitze aurreikusiak dauden 3 faseak amaitzen direnean, palestinarrek beren lurren %12a galduko dute.

Harresia inguru batzuetan 8 metrotako altuera duen porlanezko eraikuntza da, zaintze-dorreekin. Beste alde batzuetan orde, elektrifikaturiko hesi geruza desberdinez osaturik dago, lubakiekin, patruilatzeko bideekin eta zaintze-kamarekin.

Apartheidaren Harresi honen eraikuntza estrategia anker baten alde agerikoena baino ez da. Harresiarekin batera, soilik israeldarrak diren eta judutar erlijioa duten hiritarrentzako ezarritako kolonia eskusiboak daude, bide sareak, putzu eta ur hodiak eta ureztatze-sailak, sare elektrikoak, eta itxuraz demokratikoa den legeria baina benetan sakonki baztertzailea dena eta araudi burokratiko erabat baztertzailea duena judutarra ez den edozeinentzako. Honek guziak, Israelek palestinar herriaren aurka gauzatzen ari den genozidioa eta kanporatzea erakusten du, hori bai, itxura "baketsua eta demokratikoa" duena.

Honez gain, palestinarren hilketak daude, batzuetan kolono israeldarren eskutik zigorgabetasun osoz. Beste batzuetan Israelgo armadak eginak, gizadiaren aurkako krimenak direnak dudarik gabe.

Hau guziagatik, LAZKAOKO UDALAK, honako hau adierazten du:

Bere esku dagoen guzia eta bere eskuduntzazkoa den edozer eginen duela, Israelgo gizarte zibila, gobernu eta armada Palestinako lurralde okupatu osotik erretiratzeko eta palestinar guzien eskubide guziak berma ditzaten, behartzeko.

Hau honela ez den bitartean, Israelgo produktuekiko boikot komertzial bat deitu, sostengatu eta eginen du. Israelekin negozioak eta inbertsioak egiten dituzten enpresa eta erakunde finantzario guzietan, euskaldunak izan edo ez, hauek eten ditzatela eskatuko du. Era berean, udalerriaren barrutian, Israelgo edonolako jarduera akademiko eta intelektual, kultural naiz kirol arlokoari boikota eginen dio eta egin dakiola, aldarrikatuko du.

Aldi berean, Palestinako herriarekiko elkartasuna adieraziko du; jarduera instituzionalak, kulturalak komertzialak etab. bultzatuz eta horretarako esku artean dituen baliabide guztiak erabiliz."

EAJ eta EBk izenpetutako mozioak honela dio:

"EAJ-EB UDAL GOBERNU TALDEAK PALESTINAKO "NAKBA" EDO DESASTREN AURREAN 60GARREN URTEURREN HONETAN ADIERAZTEN DUGU:

...///...

...///...

2008ko urte honetan 60 urte dira giza eskubideen adierazpen unibertsala egin zela, eta aldi berean 60 urte dira Israelgo estatuaren sorreratik.

Estatu judutar bat eremu arabiar musulman batean inposatzeak Israel eta ingurukoen arteko guda eta bortzikeria sortarazi zuen, herrialde Palestinoaren kanporatze, desjabetza eta bizitza egoera latzak odorioztatuz. Egoera latz hau egunero ikus daiteke giza eskubiden urraketan sistematikoki bortizkeria erabiltzean eta atentatuaren ondorioz bi aldeetan gertatzen diren zibilen heriotzetan. Palestinoek Nakba hitza erabiltzen dute 1948ko maiatzak 14ean Israelgo estatua sortu ondoren izaniko DESASTREA deskribatzeko.

Eskubide sozial eta ekonomikoei dagokienez pertsona eta merkataritzari egiten zaizkion blokeoek, azpiegitura eta etxebizitzaren suntsiketak, ur hornidura eta landa lurren deuseztapenak Gazako eremuan bizi diren milioi ta erdi biztanle pobrezia sakon batean sartu eta kanpoko laguntzaren menpekotasunera lotuta bizitzea ekarri dute.

Amnistia Internazionalak dioen moduan nazioarteak Israelgo okupazio militarri amaiera betearazi eta Israel eta Palestina herrien oinarritzko eskubideak zehaztu ezean ez bake iraunkor bat lortzeko ikusmira erabat iluntzen da, eremu horretako ezegonkortasunaz gain mundu mailako gatazka iturri larri bat izanen delarik.

Hau guztia kontuan izanik, Nazio batuek, Europako parlamentuak, Eusko Jaurlaritzak, eta beste instituzio batzuek egindako adierazpenekin bat eginez Israelgo, Palestinako eremu okupatu eta Gazako eremuan pairatzen ari diren egoeraz arduraturik adierazten degu:

1.- Israelgo estatuak sistematikoki Palestinako herriaren kontra egiten duen bortizkeria erabilpena salatu, eta Palestinako herriarekin elkartasuna adierazi bera bait da gudu honetako biktimen nagusia. Urrenez urren Israelgo estatuari exijitzen diogu Palestinako herriarekiko giza eskubideen urraketak bertan bera utz ditzala.

2.- Bi aldeei eskatzen zaie nazioarteko hitzarmen eta itunak errespetatu ditzaten eta bertan bera utzi dezaten bortizkeria, pakea lortzeko derrigorrezko baldintza izanik.

3.- Israelgo estatuari Palestinako Autoridade Nazionaleko suberautzako eremua uztea exijitzen zaio.

4.- Palestinako herriari honek bere etorkizuna aske erabakitzeko duen eskubidea aldarrikatzen dugu, bestalde 1949 urtearen aurretik zeuden mugak berreskuratu, eta Palestinar estatu bat lortzeko bake akordio egonkor bat negoziatu dezaten babesa eskeintzen diegu.

5.- Gure larritasuna eta kezka adierazten degu Gazako eremua eta herritarrak jasaten ari diren gabeziak direla eta, eta dei egiten diogu euskal instituzioei, egoera jasangaitz hauen haurrean gatazka honetako ahulenen beharrei laguntzen jarraitu dezan."

Saldaña zinegotziak (EB) esten du mozio instituzionala bultzatuko duela eta beste mozioari buruz esaten du bere hasierako zatiarekin ados egonik ere ez dagoela ados produktu israeldarrekin boikotatu egitearen gaiarekin, besteak beste, hori aurrera eramatea ezinezkoa delako.

...///...



...///...

Guzti honen ondoren bi mozioak bozketatzen dira. Lehen mozioari dagokionean, Osoko Bilkurak, aldeko boturik gabe, aurkako 8 botu (EAJ, PSE-EE, PP) eta 3 abstentzioz (EB, Felix Urkola eta Lurdes Garmendia) ez du onartzen. Bigarren mozioari dagokionean, Osoko Bilkurak, aldeko 7 botu (EAJ, EB), aurkako boturik gabe eta 5 abstentzioz (PSE-EE, PP, Felix Urkola, Lurdes Garmendia) onartu egiten du.

IX.- LEHENDAKARIAK EGIN DUEN KONTSULTA PROPOSAMENAREN AURKAKO PARTIDO POPULARRAREN MOZIOA ETA GAI BERAREN INGURUKO EAJ ETA EB-RENA.-

Partidu Popularrak aurkeztutako mozioak honela dio:

"Espainiako Konstituzioaren 62. artikuluan ezartzen da Erregeari dagokiola "erreferendumerak deitzea Konstituzioan aurreikusitako kasuetan". 92. artikuluan hau adierazten da "Erreferendumerako deia Erregeak egingo du, Gobernuak presidentearen proposamenez; Diputatuen Kongresuak aurrez baimendu beharko du proposamen hori." Eta azkenik, 149.32 artikuluan, Estatuaren eskumen eskusibotzat hartzen da "Erreferendum bidezko herri kontsultak egiteko baimenak ematea".

Bestalde, eta hau ere erabat juridikoa den alorrari dagokionez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzeko 7/1985 Legearen 71. artikulua herri-galdeketa deialdien kasurako zehazten du "Estatuaren legediaren arabera" egin behar dela, "aurretik Nazioko Gobernuaren baimena izanik" eta "Alkateak" izango direla deialdia egiteko arduradunak, eta "udalen eskumen propioa nahiz tokiko izaerako" auzietara mugatuko dela.

Hortaz, guztiz argi geratzen da, ematen zaion izena ematen zaiola, Lehendakariaren proposamenak ez duela lekuri gure legediaren esparruan hertsiki juridikoa den ikuspuntutik, eta beraz, gure legediak Euskal Autonomia Erkidegorako Estatuaren ordezkari gorenari ematen dizkion eskumenak gainditzeko dituela.

Baina gogoeta juridiko horiez gain, ezinbestekoa da zenbait zehaztapen politiko egitea, Lehendakariak planteatutako erroka instituzionalaren garrantzia dela medio. Aurkeztutako ekimen horren helburua da Zuzenbideko Estatua lege kanpoko deialdi baten bidez proban jartzea, euskal gizarteak, antza, bere etorkizunari buruz erabakitzeko jatorrizko eskubidea duelako argudio faltsua erabiliz hori justifikatzeko, kontuan hartu gabe gure gizartearen pluraltasuna. Ibarretxe ezin du ahaztu euskal gizarteak aldebakarrak erabakita alboratu ezin daitekeen osotasun baten parte dela, ezta herritarrok demokrazia heldu zenetik bozen bidez esan duguna era interesatuan isilpean gorde ere.

Proposamena arduragabetasun politikoaren adibide eta jarduna da, euskal herritarrek arriskuan jartzen baititu, amildegiaren ertzean, ageri-agerian lege kontrakoa dena egitera bultzatzen baititu. Ekimen horrek zatiketa areagotzen du, eta Lehendakariak darabilen barriketaren inposaketaren adierazpen nagusia da.

Aldarrikatzen dugu indarrean daudela Espainiako Konstituzioa eta Gernikako Estatutua, funtsezko arauak direla, autogobernu mailarik altuenak eman dizkigutela eta gure elkarbizitzaren funtsezko zutabe izan direla eta oraindik ere badirela, Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrerakuntza eta modernizaziorako tresna nagusi. Lehendakariak jotako enbidoaren aurrean ordenamendu juridikoa babesteak erantzun zuhurra, irmoa eta sendoa es-

...///...

...///...

katzen dio Nazioko Gobernuari; hau da, Zuzenbideko Estatuak horretarako ematen dizkion tresnak baliatzea.

Hauteskunde araubide Orokorren 5/1985 legeak berebiziko garrantzia duen papera ematen die udalei bozaldi bakoitzean. Hor jartzen du "Udaletako idazkariak Eskualdeko Hauteskunde Batzordeen ordezkariak direla eta haien ikuskaritza zorrotzaren pean jardungo direla", edota "Udalek Probintzietako nahiz Eskualdeetako Hauteskunde Batzordeei beren funtzioak betetzeko behar dituzten baliabide material eta pertsonalak emango dizkietela". Hortaz, ezinbestekoa da udalak adostasuna lortzea Lehendakariaren legez kontrako erreferenduma egitea erraztu lezakeen edozein logistika laguntza argi eta garbi ukatzeko.

HORREGATIK GUZTIAGATIK, ALDERDI POPULARRAK ADIERAZPEN INSTITUZIONAL HAU AURKEZTU DIO OSOKO BILKURARI, AZTER ETA ONAR DADIN.

Lehena. Lazkaoko Udalaren Osoko Bilkurak adierazten du Espainiako Konstituzioa eta Gernikako Estatutua gure askatasun nahiz eskubideen erabilera bermatzen duten legezko arauak direla, eta euskal pluraltasunaren, garapenaren nahiz autogobernuaren erakusgarri nagusia direla.

Bigarrena. Lazkaoko Udalaren Osoko Bilkurak Ibarretxe Lehendakariari exijitzen dio uko egin diezaiola bere eskumenetatik eta gaitasun juridikotik kanpo dauden erreferendumak deitzeari, eta indarrean dagoen legedia zorrotz-zorrotz bete dezala. Era berean, eskatzen dio bere jardun politikoaren funtsezko lehentasuna terrorismoaren aurkako borroka eta ETaren porrota izan ditzala, baita herritargo osoarentzat askatasunak berreskuratzea ere.

Hirugarrena. Lazkaokoko Udalaren Osoko Bilkurak Nazioko Gobernuari eskatzen dio mar-txan jar ditzala Zuzenbide Estatuak legez kanpoko erreferenduma eragozteko ematen dizkion mekanismoak.

Laugarrena. Lazkaoko Udalaren Osoko Bilkurak erabaki du ez ematea hauteskunde pro-zesu ilegala aurrera eramateko baliabide material eta administratiborik."

EAJ eta EBk aurkeztutakoak honela dio:

"2007ko irailaren 28an, Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkurak politika orokorreko eztabai-da egin zuenean, lehendakariak itun politiko baterako erakunde-eskaintza egin zion Espai-niako Gobernuako lehendakariari; eskaintza, indarkeria arbuiatzeko printzipio etikoen eta euskal gizartearen borondatea errespetatzeko printzipio demokratikoan oinarritzen zen.

Eskaintza 2008ko ekainera arte luzatzen zen, Espainiako Gobernuako lehendakariarekin eginiko itun politikoa, halakorik egin ez balitz, Eusko legebiltzarreko osoko Bilkurak berres-teko aukera izan zezan bilkura-aldia bukatu baino lehen loteslea ez den kontsulta bategi-tea baimen zezan, hain zuzen ere, egoera politikoa desblokeatzeko eta negoziazioen pro-zesu bat irekitzeko kontsulta bat.

Negoizazioak hastea gaituko duen kontsulta egitea, beraz, Espainiako Gobernuarekin itun politikorik egon ezean emango litzateke, hau da, era subsidiarioan. Itun politiko hori lo-tzen saiatu dira lehendakariak Espainiako Gobernuako lehendakariari eginiko eskaintzaren esparruan.

...///...



...///...

Bi gobernuak adostasun batera iritsi ez direnez, Euskal Gobernuak bere lehendakariaren proposamenez, bidezko iruditu zaio Eusko Legebiltzarrari deialdi eta herri kontsulta bat egiteko proposamena egitea, loteslea ez dena, pakea eta normaltasun politikoa lortzeko negoziaketa prozesu bati hasiera emateko, botu aktiboa duten herritarron iritzia biltzeko helburuarekin, hau da, ETArri indarkeriaren amaiera eskatzeko, armak erabat baztertzeko, elkarriketa bideratu, eta beste alde batetik alderdi politiko guztien arteko negoziaketa bat ireki normalkuntza politiko bat lortzeko helburuarekin, eta bertan ezarriz Euskal autonomia Erkidegoko eta Espainiar Estatuaren arteko harreman berri baten oinarriak.

Aurrikusitako kontsulta, beraz instrumentu legal eta demokratikoa da, Euskal Herriak herri partaidetzaren oinarritzko eskubidea erabili dezan bere ardurako eta garrantzizko gaietan.

Eusko Legebiltzarraren egitekoa oinarritzkoa da printzipio demokratikoen garapenean eta Euskal Herriko biztanleok dugun partaidetza politikoaren oinarritzko eskubideen babesean, eta bereziki Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 9.2 artikulua (e) atalean onartutako oinarritzko eskubidea kontsulta hau gauzatze aldera, bertan ezartzen bait dira euskal bostere publikoen betebeharrak, bere eskuduntzen atalean "herritarron partaidetza Euskal Herriko bizitza politiko, ekonomiko eta sozialean" partaidetza ematea.

Aipatutako kontsultak, juridikoki loteslea ez bada ere, biolentziaren erabateko amaierari heldu eta bultzatzeko erabateko balio politiko eta soziala du, baita euskal gizartearen iritzia jakiteko ere, gatazka politiko honen behin-betiko erabaki prozesu bati hasiera emateko, inplikaturako alde guztien artean eta inor baztertu gabe.

Aipatutako arrazoiak direla eta, erreferendun bidez egindako kontsulta bat ez denez edozein modalitateetan dela ere, eta juridikoki loteslea ere ez denez, aipatutako kontsulta prozesuari ez dakioke aplikatu urtarrilaren 18ko 2/1980 lege organikoa, zeina erregulatzen dituen erreferendun modalitate desberdinak eta beraz bertan ez da zehazten Estatuak aurrez eman behar duen deialdirako baimena.

Helburua beraz, kontsulta bat egiteko deialdia egitea da, loteslea ez dena, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen iritzia jakin ahal izateko, pakea eta normalkuntza politikoa lortu ahal izateko negoziazio prozesu bati hasiera eman, baita aipatutako kontsulta egiteko eta garatzeko alderdi nagusiak arautu, aipatutako legeak aurreikusten ez duen guztia utziz Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetako ekainaren 15eko 5 /1990 legeak jasotzen duen hauteskunde prozesuen xedapen erregulatuaz.

Guztiz honen aurrean osoko bilkurari honako akordioak har ditzan proposatzen zaio:

1.- Lazkaoko Udalak Espainiako Gobernuari eskatzen dio Eusko Legebiltzarraren erabaki demokratikoak errespetatzeko, eta konpromisoa hartzeko euskal gatazkaren irtenbidea elkarriketaren bidez negoziatzeko euskal erakundeekin.

2.- Lazkaoko Udalak adierazten du ETArri indarkeria elkarriketaren bidez amaitzea babesten dutela, Ajuria Eneako Itunak dioen bezala, eta Diputatuen Kongresuak 2005eko maiatzaren 17an onartutako ebazpenak dioen bezala.

...///...

...///...

3.- Lazkaoko Udalak euskal alderdi guztiei, inor baztertu gabe, eskatzen die negoziazio politikoaren prozesu bat hasteko, Euskal Herriak erabakitzeke duen eskubidearen gauzatzeari buruzko akordio demokratiko bat lortzeko.

4.- Lazkaoko Udalak adierazten du lehendakariaren eta Espainiako Gobernuaren lehendakariaren arteko elkarriketa babesten duela, gero euskal gizarteak berretsiko duen elkarbizitzarako akordio bat lortzeko."

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du PPK aurkeztutako mozioa onartuko dutela eta EAJk mozio honetan, ziurrenik ere bakarrik Lehendakariak kontrolatzen duen eta eskuetatik aldegin dion zerbait defendatzen azaltzen duen diskurtsoaren erabat aurka daudelako, eta honek (Lehendakariak) aurrera egitea nahiago duela eta EAJk atzetik jarraitzea.

Estensoro zinegotziak (EAJ) Serna zinegotziari erantzunez esaten dio berak ez dakielako bihar zer gertatuko den, baina gaur zer gertatzen ari den bai, hau da, PP eta PSOE-rena gertatzen ari dela.

Serna zinegotziak Estensorori erantzunez esaten dio behar bada, hori gertatu dela, ekimen aurrera eramatearen talde bultzatzaileak beste batzuekin saiatzea nahiago izan duelako.

Saldaña zinegotziak (EB-B) Serna zinegotziari erantzuten esaten dio ea apoio horiek hirukoa botatzeko direnean ez al duten balio.

Serna zinegotziak, Saldaña zinegotziari erantzunez, esaten dio ikusten duela hiru koaren barruan, boteretik botako dutenaren kezka besterik ez duenik ba dela.

Jendartetik, eta horretarako alkatearen baimenarekin, Joseba Hernandezek esaten du beraiek lehenengo mozioaren aurka azaltzen direla, oso aurka, eta bigarren mozioan gauza batzuekin ados egon daitezkeela eta beste batzuekin ez, zehatzago esanda galdeketa egitearekin ados daudela baina zer eta nola galdetzen denarekin ez; gaineratzen du Ibarretxek berak ere ez duela berresten prozesu hau Euskal Herri osoarentzat izango denik, bakarrik Euskal Autonomi Erkidegoarentzat, eta prozesu hau espainiako judikaturak atzera botako balu, ea desobedientzia zibil-juridiko-politiko batean sartzeko prest leudekeen jakin nahiko luketela, sinisten duten hori aurrera atera dadin; baita ere esaten du mozio horretan azaltzen dela baita ere Lazkaoko Udala euskal alderdi guztiei zuzentzea, inor baztertu gabe, eta gaur egungo errealitatea bestelakoa dela batzuek baztertuta daudela. Horregatik beraiek abstenitu egingo liratekela bigarren mozio honen aurrean.

Guzti honen ondoren bi mozioak bozketatzen dira. Lehen mozioari dagokionean, Osoko Bilkurak, aldeko 3 botu (PSE-EE, PP), aurkako 8 botu (EAJ, EB-B) eta abstentzio batez (Lurdes Garmendia) lehenengo mozioa ez du onartzen. Bigarren mozioari dagokionean, Osoko Bilkurak, aldeko 7 botu (EAJ, EB), aurkako 3 botu (PSE-EE, PP) eta 2 abstentzioz (Felix Urkola, Lurdes Garmendia) onartu egiten du.

X.- INMIGRAZIOARI BURUZ EUROPAKO DIREKTIBAREN AURKA, EAJ ETA EB-K AURKEZTUTAKO MOZIOA.-

...///...



...///...

Jarraian, Europako Legebiltzarrak inmigraziori buruz onartutako zuzentarauaren aurrean EAJk eta EB-Bek aurkeztutako mozioa irakurtzen da. Mozioak honela dio:

"Europako Parlamentuak "itzultzeko" zuzentaraua onartu du ekainean. Bertan, zenbait irizpide zehaztu dira, erabaki administratiboen ondorioz etorkinak 18 hilabetera arte atxikitze-ko eta herrialdeetatik botatzeko. Bi urteko epea ezarri da, herrialdeek euren legeria egokitu dezaten eta paperik gabeko guztiak botatzen hasi daitezten. Gainera, paperik gabekoak ezin izango dira bost urtean itzuli Europar Batasunera.

Hori onartzean, "legez kanpoko gizakiaren" kategoria onesten denez, giza eskubideen aurkako politika bateratua zilegizkoa da balio demokratikoen eta justizia sozialaren defendatzailea eta bultzatzailea omen den Europan.

Zuzentarau horretan, milioika babesgaberengatik giza eskubideen urraketa ezkutatu nahi duten xenofoboen eta hipokriten diskurtsoak eta proposamenak onesten dira:

- Errugabeak urtebete eta erdi egongo dira atxikita, zentro berezietan eta espe-txeetan ere bai.
- Egoera administratibo irregularrean dauden pertsonak iragaitza-herrialdeetara bidaliko dituzte, herrialdeekin inolako harremanik ez duten arren.
- Laguntzailerik gabeko adingabeak zentroetan sartu eta aberriratu egingo dituzte.
- Oso ahulak diren pertsonak bermerik gabe atxilotu eta zentroetan sartuko dituzte: emakume haurdunak, adinekoak, senideekin datozen adingabeak, tortureta-ko biktimak ...
- Europako zenbait estatutan, atxikitzeko gehienezko eperik ezarri ez dutenez, orain urtebete eta erdiko atxiloketak ezarriko dituzte Europar Batasuneko estatu guztietan.
- Herrialdeetatik botatzen dituztenean, gutxienez ezin izango dira Europar Batasun-ean bost urtean sartu (Orain arte, epe hori 3 urtekoa zen Espainian).



Hori guztiori dela-eta, honako erabaki hau proposatzen diogu udalbatzari:

1. Lazkaoko Udalaren ustez, ezin dituzte etorkinak delitugileak izango balira bezala tratatu, etorkinak izateagatik.
2. Lazkaoko Udalaren iritziz, Europako Parlamentuak onartutako Zuzentarau Europa-rraren ondorioz, atzerapauso handia emango da balio demokratikoetan eta justizia sozialean, nahiz eta gaur egungo nortasun europarraren oinarritzko bi zutabe izan.
3. Lazkaoko Udalaren ustez, zuzentarau hori ezarriz gero, arrazakeria instituzionala ezarriko da, eta demokrata guztiok horren aurka egon behar gara, inolako zalan-tzarik gabe.

...///...

...///...

4. Lazkaoko Udalak Europako Parlamentuari eta Espainiako gobernuari jakinaraziko die zuzentzarako horren aurka dagoela erabat."

Ondoren mozio hau bozkatzen da. Osoko Bilkurak, aldeko 8 botu (EAJ, EB-B) aurkako boturik gabe eta 4 abstentzioz (PSE-EE, PP eta Lurdes Garmendia) mozioa onartu egiten du.

XI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

